


BIKMOR 2002 M7,5FH



Produktuaren deskribapena

- Lehorrean aurrez nahastutako zarpiatzeko mortero grisa, zementuz, kare-hidratoz, hautatutako granulometriako kareharriz eta gehigarri kimikoz egina.
- Produktu guztiak **W2** motako hidrofugazio altuko bertsioan edo zementu sulforresistentearekin (SR mota) fabrikatu daitezke

Erabilerak

- Hormigoizko, adreiluzko edo hormigo-blokeko hormak zarpiatzea, etab.
- Erraztasunez lan egitekoa
- Adreiluzko hormak edo hormigoizko blokeak elkartzeko ere egokia.

Euskarriak

- Adreiluzko edo hormigoizko fabrika-euskarri konbentzionalak. Ez erabili igeltsuzko euskarri edo antzekoetan.
- Porotasun gutxiko euskarrien gainean (leundutako hormigoia), aurretik BIKREX produktua aplikatu edo behar den zimurtasuna lortu tresna mekanikoen bidez.
- Kasu guztietan, euskarriak egonkorra izan behar du (>28 eguneko gogortzea), eta garbi egon behar du, hautsik, koiperik pinturarik eta abarrik gabe

Arreta-neurriak

- Erabili beharreko produktua euskarri motarako eta egingo den lan motarako egokia dela egiaztatzea.
- Produktua gomendatutako ur kantitatearekin oratzea beti (4-4,5 litro/zaku bakoitzeko gutxi gorabehera) eta ez gehitzea zementua, harea, edo beste jatorrizko formula aldatzen duen edozein produktu.
- Orearen bizi-denbora gainditu ondoren, ez gehitu oratzeko ur gehigarriak.
- Produktua aplikatzean, giro-tenperaturak 5° C eta 35° C artekoa izan behar du.
- Saihestu hautsa arnastea eta oratutako produktuak larruazala eta begiak ukitzea. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu dagokion segurtasun-datuen orria

Araukak

	
Morteros y Revocos BIKAIN, S.A. Aldebarrena Auzoa 18 48212 (Mañaria)-Bizkaia 07 Nº DdP : R1	
EN 998-1 BIKMOR 2002-M7,5FH Hormetan, sabaietan, pilareetan eta trenkadetan erabilerara arrunteko emokatzeko mortero industrialak	
Konpresioarekiko erresistentzia:	CSIV maila
Itsaspena:	Ö0,1 N/mm ² (FP: A-B)
Lehorrean itxurazko dentsitatea:	1,5-1,7 (gr/zm ³)
Suarekiko erreakzioa :	A1 mota
Ur xurgapena:	W1 Ö0,4 (kg/m ² .min ^{0,5}) W2 Ö0,2 (kg/m ² .min ^{0,5})
Ur-lurrunarekiko iragazkortasuna (λ_{10dry}):	≤15
Eroankortasun termikoa:	0,61 W/mK (P %50eko balio tabulatua)
Iraunkortasuna:	PND

Beste ezaugarri tekniko batzuk

- Itxura:** Hauts grisa
- Granulometria:** 0-1,2 mm
- Konpresioarekiko erresistentzia (UNE-EN 1015-11):**
Bataz bezteko balioa 7,5 (N/mm²) gutxi gorabehera
- Freskoan itxurazko dentsitatea (UNE-EN 1015-6):** ..
..... 1,7 ± 0,1gr/zm³
- Uraren % (175±10 mm-ko trinkotasuna UNE-EN 1015-3):**.....%17-18
- Errendimendu teorikoa:**..... 20-22. (Kg/zm.m²)
- Muga-zergen partida:**.....3824.50.90.00

Erabilera

- Produktua aplikatu aurretik, egiaztatu euskarria hautsez, koipez eta abarrez garbi dagoela, eta behar besteko adina duela erretrakzio bidezko pitzadurak saihesteko.
- Saihestu izozteak, haize zakarra eta eguzki bizia. Ez erabili inoiz gainazal izoztuetan.
- Giro hezean eta xurgapen txikiko euskarriekin, gogortzea luzatu eginten da. Eguraldi oso lehorrarekin, gogortzea laburtu eginten da.
- Euskarria oso xurgatzailea bada edo hondatuta badago, produktua errazago itsasteko, euskarria busti edo zarpiatu egin behar da emokadura aplikatu aurretik.
- Produktua modu trinkoan eta uniformeaz zabaltzeko moduan aplikatu, gainazala homogeneizatzeko. Behar den gogortasuna lortu ondoren, nahi den akabera eman (karrakatua, leuna, ë)
- Zarpiatzeko lodiera optimoa 10 eta 20 mm artekoa izan behar da, eta ez da inola ere 10 mm baino txikiagoa izan behar. Lodiera handiagoetarako, lana bi aldiz egin behar da, alkaliekiko erresistentea den beira-zuntzeko sare bat zarpiatuaren lodieraren erdian jarri, baina inoiz ez 40 mm baino lodiagoa.
- Paramentuaren junturekin bat datozen junturak egin behar dira. Gainera, komeni da zatikatze egokiak aurreikustea, pitzadura-arriskua mugatzeko.
- Euskarri desberdinen arteko loturetan edo pilare, forjatu eta abarrekiko elkarguneetan, alkaliekiko erresistentea den beira-zuntzeko sare bat jarri behar da, junturak gutxienez 20 cm gainjarri.
- Zarpiatuaren gainean beste estaldura bat jarri gero, kontuan izan behar da estaldura horrek ez duela inoiz zarpiatzeko oinarri-geruzak baino erresistentzi handiagoa izan behar

JUNTURATARAKO

- Juntura garbitu mortero zaharra kenduz, gutxienez 10mm-ko sakonerara arte.
- Juntura ondo eskuilatu, hauts-hondarrak, partikula solteak eta abar kentzeko
- Mortero berria aplikatu aurretik, juntura garbia busti behar da, ez saturatzeko.
- Laua edo paleta erabiliz, mortero berria aplikatu, presioa eginez juntura ondo betezen dela ziurtatzeko.

Hornidura

- 20 eta 24 m³ edukierako siloetan, obretan zisterna kamioien bidez betetzen direnak.
- Siloek produktua automatikoki eta etengabe jasotzeko ekipoak izan ditzakete, obra-beharren arabera
- 25 kg-ko paper-zakuetan. Paletizazioa: 60 zaku/palet (1500 kg)
- Hornidura, indarrean dauden Kontratazio Baldintza Orokorren arabera arautuko da beti.

Biltegitratzea

- Siloan bermatuta dago produktuak bere ezaugarriak bere horretan mantentzen dituela fabrikazio-datatik aurrera, bi hilabetez
- Zakuetan bermatzen da produktuak bere ezaugarriak bere horretan mantentzen dituela urtebetez, fabrikazio-datatik aurrera, betiere leku estali eta lehorrean kontserbatzen bada..

Bezeroari arreta emateko zerbitzu teknikoa

- Produktuak aukeratzeari, erabiltzeari edo aplikatzeari buruz zalantzarik izanez gero, kontsultatu aldeztu aurretik gure bezeroaren arretarako zerbitzu teknikoarekin.
- Produktu berezi bat behar baduzu, gure bezeroaren arretarako zerbitzu teknikoak zure zehaztapenak zehazten lagunduko dizu, eta zure beharretara ondoen egokitzen dena garatuko du.

Oharrak

- Gure aplikazio-aholkularitza teknikoa, dela hitzezkoa, dela idatzizkoa, dela saiakuntzen bidezkoa, gure jakintza eta ulermen leialaren arabera egiten da, baina KONPROMISORIK GABEKO adierazletzat baino ez dira hartu behar. Obran bertan esku hartzerik ez dagoenez, informazio horiek BIKAIN inola ere arriskuan jartzen ez duten ohar orokorrak dira.
- Fitxa teknikoak ezin ditu islatu material baten erabilera esku hartzen duten aplikazio eta faktore guztiak. Horrela, fitxa honetan deskribatzen ez diren kokapenen aurrean, gure zerbitzu teknikoarekin kontsultatzea edo aurretiko froga bat egitea gomendatzen dugu, egokia den egiaztatzeko.
- Erabiltzeko moduaren jarraibideak gure saiakuntzen eta ezagutzen arabera egiten dira, eta kontsumitzailea ez dute produktuaren azterketatik edo egiaztapenetik askatzen, behar bezala erabiltzeko. Beraz, produktua erabili aurretik, erabili behar duenak zehaztu beharko du ea aurreikusitako erabilerarako egokia den ala ez, produktua erabiltzeak sor dezakeen erantzunkizuna bere gain hartzen baitu. BIKAIN-en erantzunkizuna erabilitako salgaiaren baliora mugatuko da.
- BIKAIN enpresak, kalitate-sistemetan UNE EN-ISO 9001 Arauaren eskakizunen arabera erregistratutako enpresak, bere produktuak kalitate-laborategiak kontrolatu dituela eta fitxa teknikoetan deskribatutako ezaugarriekin bat datozela bermatzen du.

2025eko iraila

MORTEROS Y REVOCOS BIKAIN, S.A.

Aldebarrena Auzoa 18 – 48212 Mañaria (Bizkaia)

+34 946 202 496

www.bikain.com

info@bikain.com

